

4

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 4. mailako AUKERAGAIAK

✓ FRANTSESA 2. HIZKUNTZA.

ZERGATIK?

Hizkuntzak ikastea ezinbestekoa da gaur egungo Europan eta ez da atzendu behar frantsesa lehen mailako hizkuntza dela nazio-arteko harremanetan. Beraz, frantsesa bigarren atzerriko hizkuntza bezala ikasteak **aukera** asko emango dizkigu:

1. Hizkuntzaren bidez, bertze kultura eta bizimoduak ezagutzea **oso aberasgarria da garapen pertsonalerako.**
2. Ohitura eta ikuspuntu arrotzak begirunez hartzeak **pertsonaren heziketa osoa** indartzen du eta aldi berean, posible egiten du norberarena baloratzea.
3. Hizkuntzak ezagutzeak bere **abantailak ditu lan munduan**. Lanpostu askotan ezinbestekoa da eta bertze zenbaitetan mailaz igotzeko edo soldata hobeak irabazteko aukera ematen du.
4. **Bidaia** egitearen gozamina gure eskura jartzen du eta **giza harremanak** sustatzen ditu.
5. Europarrak izateari etekina ateratzen ahal diogu Europar Batasunaren prestakuntzarako programetan parte hartuz: **bekak, praktikak Frantziako enpresetan eta abar.**
6. Honek guztiak **garrantzi berezia du eskualde honetan**. Frantzia gertu egonik, frantsesa ikastea **erakargarriagoa** da, eskolan ikasitakoa kalean praktikatzeko aukerak badaudelako. Eta noski, etorkizunean **lana aurkitzeko baliagarria** suertatuko zaielako.

HELBURUAK

Bigarren atzerriko hizkuntza bat ikastearen helburu nagusia da frantsesez komunikatzen ikastea. **Gaitasun komunikatibo hori lortzeko** erran nahi du:

- **ahozko mezuak ulertzeko eta sortzeko gai izatea.** Mezuok eguneroko komunikazio egoerei loturikoak edo ikasleen interesekoak izango dira.
- **Idatzizko mezuak sortzeko eta ulertzeko gai izatea.** Ikasleak egoera ezberdinetan zuzentasun eta eraginkortasunez komunikatzeko gauza izango dira.
- **Hizkuntzari eta horren ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea.** Horri esker, haien komunikazio gaitasun hobetzeko estrategiak identifikatuko dituzte.
- **Alderdi soziokulturalak aztertzea.** Kultur aniztasunaren aberastasuna azpimarratuko da, begirunea eta tolerantzia garatzeko hala nola giza harremanen garrantzia nabarmenean jartzeko

HIZKUNTZAREN ABANTAILAK

Helburu guzti horiek lortzeko ariketa mota ezberdinak egingo dira (testuak irakurri eta sortu, entzumenak, bideo egokituak, abestiak, jokoak, gramatika edo hiztegi ariketak, ordenagailu programak, Internet, eskemak koadernoan, dramatizazioak, ...

Baina kontuan hartu behar da **2. hizkuntzaren ikas-prozesuak abantaila batzuk** badituela:

1. Normalean, **frantseseko irakurle - laguntzaile bat izaten da.** Honek asko motibatzen ditu ikasleak eta aho-hizkuntza behar bezala lantzen ahal da.
2. Ikasleek **D.B.H.ko lau kurtsoetan eta Batxilergoko bietan matrikulatzen ahal dira.** Honek posible egiten du hizkuntza maila on bat lortzea.

✓ I.K.T.

Informatika hauxe dela erran daiteke: informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabili eta aprobetxatzea, teknologia horiek aurkezten zaizkigun forma guztietan. Teknologia horietan sartzen dira informazioa sortu, gorde, prozesatu eta transmititzeko erabiltzen diren bitarteko elektronikoak.

EDUKIAK:

1. GUZTIENTZAKO EDUKIAK: Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea eta idatzizko iturrietako informazioa ulertzea.
2. SISTEMA ERAGILE ETA SEGURTASUN INFORMATIKOA: sare lokalak sortzea, erabiltzaile taldeak sortzea, baimenak esleitzea eta eduki eta baliabideak eskura jartzea, segurtasuna interneten, haririk gabeko konexioak eta informazio trukeak gailu mugikorren artean.
3. MULTIMEDIA: sarrerako periferikoen bidez irudi finkoa lortzea, irudi digitalaren oinarritzko tratamendua, iturri desberdinetatik soinua eta bideoa antzematea, truke sareak multimedia baliabideen iturri gisa.
4. EDUKIEN ARGITALPENA ETA ZABALKUNDEA: Egitura hipertestualetan testuen, zenbakien, soinuen eta grafikoen elementuak integratu eta antolatzea, aurkezpenen diseinua, sorkuntza eta argitalpena web-en, argitalpen estandarrak eta informazioaren eskuragarritasuna.
5. INTERNET ETA GIZARTE SAREAK: komunitate birtualak eta globalizazioa, truke ekonomikoak eta segurtasuna, urrutiko prestakuntzarako, enplegurako eta osasunerako baliabideak eskura izatea, software libre eta software pribatiboa, gizarte ingeniariak eta segurtasuna, aisiako zerbitzuak eskuratzea, intimitatea eta segurtasun pertsonala babestea, multimedia edukiak banatzeko bideak, programak eta informazioa eskuratzea, jaistea eta trukitzea.

✓ INGELESEKO B1 MAILA PRESTATZEN

JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

Gaur egun **ingelese ikastea oso garrantzitsua** dela argi dago. Arlo pertsonal batean, **jende eta kultura desberdinak ezagutzeko** aukera eskeintzen du eta hartu-eman interkultural horretan, **gure garapen pertsonala ahalbidetzen du**. Hortaz gain, gaur egungo **lan munduan ezinbesteko baldintza** bihurtzen ari da ingelesezko prestakuntza maila egoki bat edukitzea, baita maila horri dagokion titulu ofiziala ere.

“Ingeleseko B1 maila prestatzen” ikasgaiaren **helburu** nagusia **NAUHEO**-k (Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala-k) bigarren hezkuntzako ikastetxeei eskeintzen dien programaren bidez, gure ikasleei etorkizunean hain beharrezkoak izango dituzten **prestakuntza eta titulazioak eskuratzen laguntzea da**. Hortarako, komunikaziorako derrigorrezkoak diren gaitasunetan trebatuko ditugu ikasleak: entzundakoaren ulermenean, ahozko adierazmen eta elkarreraginean, irakurriaren ulermenean eta idatzizko adierazmenean.

EDUKIAK ETA METODOLOGIA

Ikasturtean zehar **batez ere ahozkoitasuna eta entzumena hobetzeko edukiak landuko dira**, baita eduki soziokulturalak, hiztegiak, gramatikak, ortografiak... ere. Hortarako erabiliko den metodologia gehienbat **komunikatiboa** izango da, ebaluaketetan zehar **proiektuak, role-play ariketak, B1 azterketa ofizialaren simulakroak, material errealeko (BBC, podcasts, videocasts...) ikus-entzunezko jarduerak teknologia berrien bidez ...** aurrera eramanez. Edukien lanketa honetan, **ikaslearen inplikazioa, bere lana eta jarreraren bidez** erakutsiko duena, behar-beharrezkoa da.

✓ BIZKARRA ETA RAKISAREN PRESTAKUNTZA ETA ZAINTZA

Institutu mailan azken urtetan gure Departamentu mailan egindako balorazioan, **gero eta ikasle sedentario gehiago** badago, Gorputz Hezkuntzako klasetatik kanpo inongo ariketa fisikorik egiten ez dutenak. Etxabeetan pasatzen dituzte gero eta ordu gehiago, eta bere aisialdi erak gero eta geldoagoak dira. Ondorioz, errendimendu fisikoko maila behititzen doa regresio nabarmenan. Errendimendu fisikoa, osasunarekin daukan loturaren ikuspegitik ulertzen dugu:

Indar falta osteoartikularki sumatzen da: bizkarreko arazoak (lunbalgiak, bizkarrezurrako okerdura patologikoak: eskoliosiak, lordosi-zifosi haundiegiak, zerbikalgiak...), giltzadura ahultasuna: horkatilak, sorbaldak eta batez ere belaunetakoak (nesketan nabarmenagoa). Honetan zentratuko gara 4 DBHn.

3. EDUKIAK.

1. gai multzoa: gorputz jarrera.
2. gai multzoa: indarra
3. gai multzoa: jarduerak naturan.
4. gai multzoa: pilates.
5. gai multzoa: zirkoko trebetasunak.
6. gai multzoa: banakako eta taldekako kirolak.

✓ MUSIKA

ZERGATIK?

Gaur egun arteak eta musikak duen garrantziaz ohartarazteko, hezkuntza integrala izateko, pertsona hobeak izateko, norberaren esfortzutik abiatuta taldean lan egiten jakiteko.

Helburu nagusiak bi dira, bakarkako lanetik abiatuta *talde lana* sustatzea eta *sormena* lantzea.

Metodologia guztiz praktikoa izanen da, egin beharreko guztia klase orduetan egingen delarik modu praktikoa batean.

Edukiak ikasturte osoan zehar nahasiko dira eta hauek izanen dira: pelikula bat egin (gidoia egin, eszenak estrukturatu eta lotu, jantziak, eszenografia, antzeztu, hots banda gehitu (musika berria sortuz edota dagoena internetetik deskargatu, bide batez musika eta zinea landuz), grabazioa, irudi eta soinu edizio programa bat landu...), koreografiak sortu, kantagintza, mutildantzak, ikasturte bukaerako kontzertuak prestatu, Baztango ondareari buruzko lan bat egin eta aurkeztu, XX. eta XXI. mendeko musikaren historia ezagutu, gorputz adierazpena, mugimendua eta sormena...